

UIFARE



MAGALE SALESIARRAK URNIETA DBH 3B: Manex Crespo, Jon Garnateo, Markel Marin eta Eider Medina.

AURKIBIDEA

PROIEKTU TEKNOLOGIKOAREN IZENA	2. orria
LABURPENA	3. orria
ARAZOA	3. orria
ERABILITAKO MATERIALAK	4. orria
AURREKONTUA	4. orria
METODOLOGIA	5-6. orria
EMAITZA	6-7-8. orria
ONDORIOAK	8-9. orria
BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK	9-10. orria

PROIEKTU TEKNOLOGIKOAREN IZENA

Gure proiektu teknologikoaren izenburua **UIFARE** da. Izen hau aukeratu dugu esateko momentuan oso erraza delako eta horrela pertsona helduek ez dituzte arazoak izango izen hau esaterakoan.

LABURPENA

Adin handiko pertsonentzako aplikazio bat egin dugu. Aplikazio horretan laguntzak daude mobilekin arazoak dauzkaten pertsonak laguntzeko, ez dutelako teknologia ulertzen. Adibidez, erakutsi ditugun gauza batzuk hurrengoak dira: modu erraz batean nola erosi amazonen, nola bilatu gauzak youtuben, teknologiarekin konpondu ditzazken arazoak konpondu... Ere aukera batzuk daude oharrak jartzeko. Adibidez, hartu behar dituzun pastilen izenak gogoratzeko, erosketarako zerrenda gogoratzeko, lagunekin geratzeko orduak jartzeko... Eta azkenik egin duguna gure aiton-amonekin eta beste pertsona batzuekin (helduak direnak) elkarrizketa bat edukitzea da. Horrela, guk jakin dugu zer arazo dituzten gure aiton-amonek mugikorrerekin, internetekin, aplikazioekin...

ARAZOA

Proiektu honetan, pertsona helduek izaten dituzten arazoak ikertu ditugu. Gure helburua pertsona helduei laguntzea da, zeren eta, pertsona helduek gehienetan arazoak izaten dituzte mugikorrekin eta eta orokorrean teknologiarekin. Hauek dira gehienetan dituzten zailtasunak: administrazioekin lotutako zerbitzuak kudeatzea, mediku espezialistekin hitzordua hartzea, senideekin edo lagunekin hitz egitea edo urrun daudenekin harremanetan egotea.



ERABILITAKO MATERIALAK

Gure proiektua egiteko gure ordenagailua erabili dugu. Aplikazioa egiteko, MIT App Inventor 2 orria erabili dugu eta aplikazioak dituen botoiak egiteko, Da Button Factory Free CTA Button Generator orriarekin egin ditugu.

appinventor.mit.edu ▼ [Traducir esta página](#)

MIT App Inventor

With MIT App Inventor, anyone can build apps with global impact. Learn More. Active Users today: 57.1K.

www.clickminded.com > [button-ge...](#) ▼ [Traducir esta página](#)

Da Button Factory - Free CTA Button Generator - ClickMinded

Da Button Factory is a simple button design tool that helps you create high-converting call-to-action (CTA) buttons for your website, blog post, social media post, or ...


AURREKONTUA

Gure proiektuan ez ditugu aurrekonturik erabili, dena dohainik izan da. Dena interneteko orriekin egin ditugulako.

METODOLOGIA

Proiektu hau aurrera eramateko, lehenengo pertsona heldu batzuekin hitz egin genuen. Beraiek mugikorrarekin zer arazoak dituzten jakiteko egunean zehar. Jasotako informazio hori, word batean jarri genuen, eta aplikazioa egiten hasi ginen. Aplikazioa egiteko, MIT App Inventor,2 orria erabili genuen eta botoiak egiteko, Da Button Factory orria.

Aplikazioa egiteko, lehen urratsa izan zen aplikazioa diseinatzea. Zer botoi jarriko genituen, zer egongo zen bakoitzean, zer funtzio edukiko zuten... Horren ondoren, bideotutorialak bilatu genituen, testuak, irakasleari galdetu genion... Behin ikusita nola egin, probak egiten hasi ginen, aplikazioaren funtzionamendua ikusteko. Ondoren benetako aplikazioa egiten hasi ginen. Lehenik, hasierako pantaila sortu eta botoiak ipini genituen. Ondoren, botoiak programatzen hasi ginen “bloques” deitutako atalean.



Botoiak egiteko, lehenengo, Da Button Factory - Free CTA Button Generator orrian sartu ginen. Behin orri honetan sartu ginenean, lehenengo botoiak egiten hasi ginen.

Lehenengo, botoiean jarri behar zuena idatzi genuen (tutoriales, notas, deporte y ayuda), eta gero letra mota jarri genuen. Ondoren, letraren tamaina eta kolorea aukeratu genuen. Jarraitzeko, gustuko genuen botoiaren forma jarri genuen. Azkenik, botoiaren kolorea aukeratu egin genuen.




EMAITZA

Hasteko hau da hasierako pantaila eta ikusten dezuten bezala 4 botoi ditugu eta pixkat azalduko diziet zertaz osatuta dagoen botoi bakoitza.



Lehenengo botoiean “ayuda” jartzen duen lekuan. Konpondu ditzakezunez gain, beste edozein zalantza izanez gero, gurekin harremanetan jar gaitzke behar izanez gero.




Beste honetan oharrak idatzi ditzakete.



Hurrengoan beraien gorputza pixka bat mugitzeko eginda dago.



Eta azkeneko botoian beste edozein tutorial ikusteko da.



Gure ustez uste genuena baino hobeto egin dugu, zeren eta, proiektuaren hasieran arazo asko eduki genitugun aplikazioa nola sortzearekin baino, irakasleen laguntzarekin, eta tutorialekin aplikazioarekin aurrera jarraitzea emaitz hau lortzeko.

ONDORIOAK

Berrito egitekotan, lana hobeto banatuko genuke. Baina guk daukagun proiektuarekin lana banatzea oso zaila izan da, aplikazioa egiteko ordenagailu bat bakarrik genuelako. Gainera, aplikazioa egiteko informazioa bilatzeko denbora gehiegi egon ginen. Tutorial asko bilatu behar izan genituen YouTubean.

Beste proiektu teknologiko bat egiterakotan, robotikarekin erlazionaturako proiektu teknologiko bat egin daiteke, aiton-amonei laguntzeko ere. Adibidez, sukaldatzen zaudenean laguntzeko tenporizadore bat, edo garbiketekin laguntzen dizuen aparatu bat... Gure helburua gure aiton-amonak edo agureei laguntzeko gauzak egitea da.

Ez zaigu asko gustatu nola gelditu den “Notas” funtzioa. Gure ideia hasieran “Recordatorios” egitea zen. Baina hori egiteko notifikatzeko funtzio bat behar genuen


eta mit app inventor-ekin ezin ziren horrelakoak egin. Orduan, beste antzeko gauza bat bilatzen hasi ginen eta “Notas” egiteak bururatu zitzaigun. Baina asko gustatuko zitzaigun “Recordatorios” antzeko zerbait egitea.

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

Aplikazioa egiteko erreferentzien adibide batzuk dituzue.


<https://www.youtube.com/embed/Vdo8UdkgDD8?autoplay=1>

Tutorial honekin aplikazioari hasiera eman genion.



https://www.youtube.com/watch?v=iikDKBFMiQI&t=1542s&ab_channel=CursodeApplInventor2%28Jos%C3%A9LuisN%C3%BA%C3%B1ez%29

Eta honekin oharrak egiteko eredu bat.



ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiogu gure aiton-amonei bere arazoak telefono mugikorrarekin eta teknologiarekin dituzten zailtasunak zeintzuk izan diren esan digutelako, bestela ezin genituzkeen beraien zalantzak eta zailtasunak konpondu.

APLIKAZIOA DESKARGATZEKO ESTEKA

Esteka honen bidez aplikazioa deskargatzeko eta probatzeko aukera izango dezute. Esteka: <http://ai2.appinventor.mit.edu/b/epa2>